



15/2002 GOMENDIOA, APIRILAREN 23KOA, ABANTO ZIERBENAKO UDALARI EGINA, ZABOR-BILKETAKO KAMIOIA EZIN IRITS DAITEKEEN ALDEETAKO ETXEETARA ZABOR-TASA MODUAN BIDALI DITUEN LIKIDAZIOAK BALIORIK GABE UTZ DITZAN, EDUKIONTZI HURBILENAK ETXE HORIETATIK 300 METRORA EDO GEHIAGORA DAUDENEAN.

Aurrekariak

1. Erakunde honetan (...) auzoko biztanleen kexa-idazki bat jaso genuen. Idazki horretan, kolokan jartzen zuten udal horren jokaera, herriko alde horretako zaborbilketa zerbitzua kobratzeari zegokionez. Horrela, kaltetuek azaldu zutenenez, Abanto Zierbenako udalak auzo horretan ematen ari ez zen zerbitzu bat kobratzen ari zitzaienten, izan ere zaborra biltzeko kamioia ezin zen iritsi auzo hartara, eta edukiontzi hurbilenak beren etxeetatik kilometro batera baino gehiagora zeuden.
2. Egoera horren aurrean, alde horretan hainbat edukiontzi jar zitzala eskatu zioten udalari. Eskaera hori ezetsi egin zen, Gobernu Batzordeak 1999ko maiatzaren 10ean hartutako erabakiaren bidez. Honela zioen erabakiak: *“en el pliego de condiciones que rige la prestación del servicio de recogida de basuras no se encuentran incluidos los puntos interesados, por lo que no procede la colocación de nuevos contenedores”*. Nahiz eta (...) auzoan zerbitzu hori ez zela ematen onartu, 1999ko irailean, udalak estolderia eta zabor tasari dagokion ordainagiria igorri zien alde horretako auzokideei, 1999ko ekainetik irailera bitartekoa.
3. Kaltetutako pertsona batzuek errekurtsioa aurkeztu zuten ordainagiri horien kontra, beren ustez ez baitzizkieten ematen bi zerbitzu horiek. 2000ko urtarrilaren 31n, Abanto Zierbenako udalaren Gobernu Batzordeak (...) andreari estolderia-tasa kentzea erabaki zuen, halako zerbitzurik ez zegoen-eta hura bizi zen aldean. Alabaina, ez zuen onartu zabor-bilketa zerbitzuari buruzko erreklamazioa, arrazoi honengatik: *“...el servicio se presta en zona cercana a su domicilio, por donde puede circular el vehículo que presta dicho servicio”*.
4. Geroago, Abanto Zierbenako udalaren Gobernu Batzordeak berretsi egin ditu bere aurreko erabakien edukiak.



5. Informazio-eskaria luzatu ondoren, udal horren idazkariak erakunde honi bidali zion udalaren Gobernu Batzordeak 2002ko martxoaren 22ko bileran hartutako erabakia. Hona hemen erabakiaren mamia:

Hiri-hondakinen bilketa zerbitzua lehiaketa publikoaren bidez eman zitzaion (...) S.A. enpresari, eta orain luzatu egin zaio kontratua.

Herrian ematen duen zerbitzua ez da berdina etxebizitzetarako hiriguneetan eta baserri-gune edo etxe bakartuetan.

Kexagileen etxeak mendiko aldeetan kokatuta daude, eta Galdamesetik Sestaorako bide zaharra erabiltzen dute hiriguneekin edo zabor-bilketako zerbitzuak erabiltzen duen bidearekin lotzeko.

Bide horren titularra Bizkaiko Foru Aldundia da, eta errodadura-geruza oso egoera txarrean dago.

Alde horretan ez da zabor-bilketako kamioia ibiltzen; horregatik, ez da egokia edukiontzi berriak jartzea.

Zabor-bilketa zerbitzuari dagokion tasa ordaintzea bidezkoa da, salatzaileek zerbitzu hori erabiltzen dutela ulertzen baita, nahiz eta edukiontziak beren etxeetatik gertu ez egon.

Gogoetak

1. Zerbitzu publikoak emateagatik eta jarduerak burutzeagatik kobratutako tasak arautzen dituen Abanto Zierbenako udalaren Ordenantzak dioenez, egitate zergagarriaren osagaia da “*la efectiva prestación del servicio o realización de la actividad por la Administración Municipal...*”. Halaber, zera adierazten du: “*la tasa se devenga cuando se realiza el servicio o actividad*”. Alegia, ez da nahikoa zerbitzu hori etheen titularren eskura egotea, herrian sortu delako.
2. Udal horrek onartzen du zaborra biltzeko ibilgailua ez dela (...) auzoaren inguruetan ibiltzen eta auzune horretatik gertu ez dela zaborra biltzeko edukiontzirik jarri. Kaltetuek adierazi dutenez, edukiontzi hurbilenak beren etxeetatik kilometro batera baino gehiagora daude. Udalak ez du datu hori ukatu, eta, nolabait, berretsi egin du, onartu baitu edukiontziak ez daudela etxeetatik gertu.



3. Zerbitzu hori benetan emateari buruz, udalari txosten bat eskatu genionean, bidezkoa iruditu zitzaigun Auzitegi Gorenaren adierazpenak gogora ekartzea (1997ko ekainaren 7ko Epaia, 12.362/1991 erre. zk.), baita ere Errioxako Auzitegi Nagusiarena (1997ko uztailaren 30ekoa, 396. zk., 292/1996 erre. zk.) eta Gaztela-Mantxako Auzitegi Nagusiarena (1997ko irailaren 25eko Epaia, 408. zk., 560/1995 erre. zk.). Horien arabera, bidegabetzat jotzen da tasa hori kobratzea udalerrriak zerbitzu hori benetan ematen ez duenean.

Horrela, Auzitegi Gorenak hauxe dio lehen aipatu epaian:

“...Es obligado, a este respecto, recordar que el hecho imponible de la tasa viene constituido por la prestación de un servicio o la realización de una actividad que beneficia o afecta de modo particular al sujeto pasivo. Lo dice taxativamente el artículo 26.1. a) de la Ley General Tributaria de 1963 (RCL 1963, 2490 y NDL 15243), según el cual 'las tasas son tributos cuyo hecho imponible consiste en la prestación de servicios o la realización de actividades en régimen de Derecho público que se refieran, afecten, o beneficien a los sujetos pasivos, cuando concurren las dos circunstancias siguientes: a) Que sean solicitud o recepción obligatoria para los administrados; b) Que no puedan prestarse o realizarse por el sector privado por cuanto impliquen intervención en la actuación de los particulares o cualquier otra manifestación del ejercicio de autoridad o porque, en relación a dichos servicios, esté establecida su reserva a favor del sector público conforme a la normativa vigente.

Por tanto, ni siquiera la mera existencia de un servicio municipal es suficiente para constituir a una persona en sujeto pasivo de la tasa establecida para su financiación, si el servicio no se presta de modo que aquélla pueda considerarse especialmente afectada por aquél, en forma de beneficio efectivo o provocación por el interesado de la actividad municipal, pues sólo con esas características puede ser un servicio municipal legitimador de la exigencia de la tasa.”

4. Era berean, aipatu berri ditugun epaile-adierazpen horietako batean, zehazki Gaztela-Mantxako Auzitegi Nagusiak 1997ko irailaren 25ean egindakoan, kexa honetan aztergai dugunaren antzeko kasu bat jorratzen da. Orduan, epaimahaiak, bere epaian, bidegabetzat jo zuen tasa bat kobratzea, bada egiaztatu zen ez zegoela zabor edukiontzirik errekurtsogilearen etxetik 300



metro baino gutxiagora. Halako kasuetan, jurisprudentziak onartzen duenez, ez da udal zerbitzurik ematen, izan ere, ez da burutzen tasa-ordainketa eskatzeko ahalmena ematen duen egitate zergagarria, hau da, ez da ematen inolako zerbitzurik edo ez da burutzen subjektu pasiboari bereziki onura ekartzen dion edo harengan eragiten duen jarduerarik.

Epai horrek zera adierazten du, zehatz-mehatz: *“en el domicilio de la entidad recurrente no existe ni ha existido nunca contenedor de basuras, encontrándose el más próximo a 300 metros de distancia, y que por tanto no se le ha realizado el servicio de recogida de basuras, procede declarar vulnerados los artículos 20 y 26 de la Ley de Haciendas Locales, ya que para poderse exaccionar una tasa determinada es necesario que el municipio preste el servicio y que éste beneficie especialmente al administrado o le afecte de modo particular, por lo que no se puede exaccionar una tasa por un servicio que no se presta”*.

5. Aztertzen ari garen kasuan, auzo hori menditsua da, edukiontziak herritarren etxeetatik kilometro batera baino gehiagora daude.

Horregatik guztiatik, gomendio hau egin genuen, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -erakunde hau sortu eta arautzekoak- 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

15/2002 GOMENDIOA, apirilaren 23koa, Abanto Zierbenako udalari egina

Abanto Zierbenako udalak baliorik gabe utz ditzala zabor-bilketako kamioia ezin irits daitekeen aldeetako etxeetara zabor-tasa moduan bidali dituen likidazioak, edukiontzi hurbilenak etxe horietatik 300 metrora edo gehiagora daudenean, izan ere, etxe horiei egiaz ez zaie zabor-bilketa zerbitzurik ematen ari.